



seme-alabak

11. alea / 11º número
2010eko Urria / Octubre 2010
L.G.: SS-1023/07

Gurasoentzat aldizkaria / Revista para padres y madres
Ordizia - Beasain - Itsasondo - Arama - Altzaga

DROGA-MENDEKOTASUNEN PREBENTZIO ZERBITZUA
SERVICIO DE PREVENCIÓN DE DROGODEPENDENCIAS



✧ **0-5 URTE:**

HEZIKETAN ELKARREKIN BIZIZ

✧ **6-11 URTE:**

**HEZHIZ, HITZ EGIN DEZAGUN
GAZTEEKIN HIZKUNTZEI BURUZ**

✧ **12-18 URTE:**

**GAURKO HEZIKETA BERDINTASUNEZKOA
ETA NEUTROA AL DA?**

✧ **ZALANTZEN TXOKOA**

✧ **0-5 AÑOS:**

CONVIENDO EN LA EDUCACIÓN

✧ **6-11 AÑOS:**

**"HEZHIZ", HABLEMOS CON LOS JÓVENES
SOBRE LOS IDIOMAS**

✧ **12-18 AÑOS:**

**¿LA EDUCACIÓN ACTUAL ES IGUALITARIA Y
NEUTRA?**

✧ **EL RINCÓN DE LAS DUDAS**

0-5 urte. Heziketan elkarrekin biziz



MARIAN GOIÑOLA ALBERDI

*Erlazio psikomotrizista
Atentzio goiztiarra*

"Haurrentzat familia da lehen talde sozionalizatzailea, beraz, merezi du garen eta dugun onena bertan jartzea" esanez bukatu nuen aurreko artikulua. Hari jarraituz, orain, heziketa familiaren eta gizartearen ardura dela adierazi nahi dut, baita haurraren eskubidea ere. Gurasook eta hezitzaileok inplikaturik gaude haurra lehen unetik aski ongi hezi eta haren zailtasunak prebenitzen.

Familia nozioa eta formak, baita ugaltze-moduak ere, aldatu eta ireki egin dira: nuklearra, hedatua, guraso bakarrekoa, adopziozkoa, homoparentala edo sexu bereko gurasoena... denak beharrezko eta balioreko dira gaur egun. Familia **nuklearraren** eta **hedatuaren** arteko elkarlaguntza beharrezkoa eta aberasgarria da. Familia zabalak hobeto kokatzen laguntzen dio haurrari gurasoek eman dioten familia-gunean, eta belaunaldi-katearen kontzientzia hartzen ere bai. **Aitona-amonen** eta biloben artean konplizitate-lotura aberasgarriak sortzen dira. Bilobek bizi-poza pizten eta mantentzen laguntzen diete aitona-amoneri. Aitona-amonak haurraren gurasoentzat laguntza handia dira eguneroko bizitzan. Ahaztu gabe, ordea, heziketa nagusiki **gurasoen ardura** dela, eta aitona-amonen laguntzak puntuala eta neurtua izan behar duela.

Familia **monoparental**, **homoparental** eta **adopziozko** buruz beste gogoeta bat: ama eta aita **figurez** gain, ama-**funtzioa** eta aita-**funtzioa** betetzea ere badagokie. Labur esanda, ama-funtzioa da haurra samurtasunez eduki, eutsi eta babestea era jarraituan; aita-funtzioa da autoritate afektiboa irmotasunez eskaintzea era jarraituan, gurasoa eta haurra enpatian, atxikimendu seguruan elkarrekin biziz.

Jorge Barudy haur-neuropsikiatraren hitzak erreferente onak iruditzen zaizkit: *"Ama, aita, hezitzaile edo ordezkoko **ona** da kalitatezko zainketa, babesa eta heziketa emateko gaitasuna duen pertsona, eta haurrari garapen osasuntsua eskaini eta haurra eraikitzaile bihurtzen duena."*

Gainera, esaten du geure umeekin nahiko onak baldin bagara, gaurko haur ongi



zaindu, estimulatu eta hezia oinarritzko baliabideak dituen haurra izango dela, bera ere etorkizunean aita edo ama ona izateko; eta gaitasun hori bizitzako lehen hiru urteetan finkatzen dela.

Kalitatezko zainketa, babesa eta heziketa nahi badugu, egunero oso kontuan hartu behar ditugu haurraren **geure jarrerak**. Haurra gorputza denez, behar fisikoak ase behar dira, ongi hezi eta familiako eta gizarterako kide gisa integratzeko; esaterako:

- ✓ **Otorduetan**, gustura eta denetik jan behar du, mahaian bere lekuan, familiarekin lasai eserita, ordu berean eta telebistatik gabe, elkarren arteko ekintza bihurtuz.
- ✓ **Lotarakoan**: erritualizazioari denbora eskainiz haurra lasaitu eta baretzeko, lo atseginean bere burua abandona dezan samurki eta irmo lagunduz, bere ohean, 11-12 ordu lo egin behar ditu.
- ✓ **Ezagutze/eraikitzearen estimulazioa**: jolas sinbolikoari denbora eta garrantzia eman, gurasoekin egunero

praktikatuz, haurraren nahi eta interesei arreta eskainiz; horrela biziz ikasiko du haurrak jolasaren garrantzia, haur sortzaile eta eraikitzaile bihurtuz.

Honek gure bizimodua eta jarrerak moldatzea eskatzen digu haurraren garapen-etapen arabera (0-3, 3-6, 6-12 urte...), eta hori batzuetan zaila eta neketsua izaten da; are gehiago, lanari eta geure buruari lehentasuna ematen badiogu. Baina izan animoak eginkizun betegarri honetan, eta gogoratu eguneroko gure jarreretan sortu eta hazten direla haurraren **gure tratu onak** eta **tratu txarrak**.

Heziketa autoritariotik permisibora pasatu garen, batzuetan muturreko jarrera kaltegarriak eta sufrimendua sor daitezke haur, guraso eta hezitzaileengan. Adibidez, irmotasunak samurtasunik gabe zurrunkeria, tentsioa, alferrikako sufrimendua... dakartza; eta samurtasunak irmotasunik gabe haurra **nor-tasun** eta baliabiderik gabe uzten du; bide beretik, esan behar dut, mugak eta ezetak beharrezkoak direla haurrarentzat, bestela barne-segurtasunik eta konfiantzarik gabe geratzen da, 'diktadore txiki' bat bihurtuz eta frustrazioa ezin toleratuz.

Seme-alabak tratu onetan hezi eta guraso-gaitasunak lantzeko, funtsezkoa da bi jarrera nagusi uztartzea: **samurtasun afektiboa** eta **enpatiazko irmotasuna**. Horiek ondo uztartuz bizitzea ez da erraza, baina gakoa da elkar hezteko: gurasoak samurra izan behar du irmoa izanez, eta irmoa izan samurra izanez.

Batzuetan, gure jarrera desegokien aurrean seme-alabek **ondoeza edo sintomak** adierazten dituzte, eta nagusioi (guraso, hezitzaile edo ordezkooi) dagokigu sentiberatasun berezi batez behatu, antze-man eta gogoeta egitea, kausak lehenbait lehen konpontzeko, heziketa osasungarria haurrari dagokion eskubidea baita.

0-5 años. Conviviendo en la educación



MARIAN GOIENOLA ALBERDI

**Psicomotricista relacional
Atención temprana**

Concluía el artículo anterior diciendo que *"la familia es el grupo primario de la socialización por lo que merece la pena que pongamos lo mejor en ella"*. Ahora quiero afirmar que la educación es responsabilidad de la familia, de la sociedad, y un derecho del niño/a. Los padres y educadores debemos implicarnos en ella desde los primeros momentos para prevenir dificultades posteriores.

La noción de familia y las formas de procreación van cambiando y abriéndose: familia nuclear, extensa, monoparental, adoptiva, homoparental... todas son igualmente válidas hoy en día. Por ejemplo, la relación y ayuda entre la familia **nuclear** y **la extensa** es enriquecedora para ambas. La familia extensa ayuda al niño a situarse mejor en el espacio familiar que le han dado los padres, y a tomar conciencia de la cadena generacional. Los **abuelos/as** ayudan a los padres en el día a día, y establecen con los nietos vínculos enriquecedores de complicidad, que crean y mantienen la alegría de vivir. Pero recuerdo que la educación es fundamentalmente **responsabilidad de los padres**, y que la ayuda de los abuelos tiene que ser puntual y medida.

Una reflexión específica sobre la familia **monoparental, homoparental o adoptiva**: además de las **figuras** parentales, deben asumir las **funciones materna y paterna**. La función materna es contener, sos-

tener y proteger al niño/a con ternura y afecto en la continuidad; la función paterna es brindar al niño/a autoridad afectiva y límites con firmeza empática, desarrollando un apego seguro.

La definición de Jorge Barudy, neuropsiquiatra infantil, acerca de ser un buen padre/madre me parece una buena referencia: *"Un buen padre o madre o sustituto es aquella persona que tiene capacidad para aportar cuidados, protección y educación a sus criaturas y que todo ello tenga una calidad que les permita tener un desarrollo sano y que puedan desarrollarse como personas constructivas."*

Según Barudy, si como padres cuidamos, estimulamos y educamos bien a nuestros hijos, éstos dispondrán de los recursos básicos y, a su vez, serán buenos padres el día de mañana, porque esa capacidad se establece en los primeros tres años de la vida.

Si queremos una educación de calidad es necesario observar y hacernos conscientes en el día a día de **nuestras actitudes** como padres. Para empezar, el niño es cuerpo y necesita cubrir y saciar sus necesidades primarias físicas, para ser educado e integrado como parte del cuerpo familiar-social. Así, tendremos en cuenta:

✓ **La comida**: además de comer de todo y a gusto, debe estar sentado tranquilamente en su sitio de la mesa, a horas fi-

jas y sin tele, importante que sea en compañía, con la familia, en acto social.

✓ **Al acostarse**: ofrecerle tiempo para crear calma y sosiego, ayudarlo con ternura y firmeza a que se abandone en un sueño placentero, en su propia cama, durante unas 11-12 horas.

✓ **Estimulación de los aprendizajes**: ofrecer tiempo y atención al niño y al juego simbólico; así se sentirá importante y motivado para ser creativo, aprendiendo con placer y estimulando el lenguaje.

Los hijos/as y nuestra responsabilidad piden que nos adaptemos en nuestra vida y en nuestras actitudes a las distintas etapas de su desarrollo (0-3), (3-6), (6-12... años), lo que a veces resulta arduo y costoso; y más aún si priorizamos el trabajo y nuestras necesidades personales. Pero mis ánimos para que se vuelva una tarea gratificante y quiero recordar que los **buenos y malos tratos** con los niños surgen y crecen en nuestras actitudes y actos diarios.

Por la ley pendular, hemos pasado de una educación autoritaria a otra permisiva. A veces se dan actitudes extremas negativas que conllevan sufrimiento y dolor en los niños/as, padres/madres y educadores. Por ejemplo, la firmeza sin ternura provoca rigidez, tensión, sufrimiento inútil...; la ternura sin firmeza deja al niño/a sin sostén y seguridad psicológicos. Subrayo también que el límite y el 'no' son necesarios para su sano desarrollo, para que no se convierta en un 'pequeño dictador', incapaz de tolerar la frustración.

Si queremos educar en los buenos tratos a nuestros hijos/as y desarrollar nuestras capacidades como padre y madre, es esencial combinar en la vivencia la **ternura afectiva** y la **firmeza empática**, algo nada fácil pero clave para la educación en la convivencia.

Para acabar, los niños, a veces, muestran **síntomas o malestar**, y entonces nos corresponde a los adultos observar con especial sensibilidad, cuidar y reflexionar para corregir las causas, a fin de prevenir y desarrollar una educación saludable, derecho del niño/a.



6-11 urte. HezHiz, hitz egin dezagun gazteekin hizkuntzei buruz



JAIME ALTUNA

Urtxintxa Eskolako Hezitzailea



Denok ezagutzen dugu Kinder arrautza zer den. Haurrei izugarri gustatzen zaien produktua da, baina, zergatik du horrenbesteko arrakasta? Txokolatzekoa delako ala barruan oparixto bat duelako? Ziur aski, arrakastaren arrazoia bikoitza da, txokolatzekoa da eta barruan sorpresa bat dauka. Zaila da bi elementu hauek bereiztea; oparixtorik gabe ez litzateke hain erakargarria izango eta txokolaterik gabe haurrek ez lukete hain gustukoa izango.

Euskararekin, eta gainontzeko hizkuntzeekin, antzeko zerbait gertatzen da. Alde bateatik, hizkuntzaren gaitasuna dago, hizkuntza ezagutu behar dugu; hiztegia, fonetika, gramatika... ikasi behar da hizkuntza horren jabe izateko. Bestetik, hizkuntzaren erabilera dago; hizkuntza horretan jardutea litzateke, hitz egitea, entzutea, idaztea...

Kinder arrautzarekin bezala, bi faktore hauen artean aukeaketa egitea zaila edo ezinezkoa da. Hizkuntza bat ezagutu gabe ezin da erabili eta hizkuntza bat ez badugu erabiltzen nekez ezagutuko dugu. Hizkuntza bat erabiltzeko ahozko eta idatzizko trebezia eskuratzea ez da aski. Hizkuntzaren ezagutza ezinbesteko baldintza da baina ez da nahikoa.

Azken 30 urteetan, haur eta gazte gehienek euskara ikasi dute. Eskolari esker, egungo gazteek euskara ezagutu dute eta, hein handi batean, euskaraz aritzeko gaitasuna dute. Kaleko erabilera, aldiz, ez da hainbeste handitu eta azken urteetan haur eta gazteen artean erabilera handitzeko hainbat programa eskaintzen dira.

Programa hauen guztien helburua euskara eskolatik kalera ateratzea da, haur eta gazteen hizkuntza jokabideak aldatzeko asmoz; kalean eta lagunartean gaztelaniaz hitz egiten duten haur eta gazteek euskaraz hitz egitea nahi izaten dugu. Baina, gehienetan jokabideen aldaketak bilatzen ditugu, gaztetxo horiek euskararekiko dituzten iritziak kontuan hartu gabe.

Zer da Hezhiz?

Hezhiz programaren bidez gazteen iritzietan, usteetan, zantzuetan... oinarritzen gara euskararen erabilera eragiteko. Hizkuntza-erabilera eragiten duten faktore, arau eta jarrerez kontzientzia hartzea garrantzitsua da. HezHiz programarekin hori da bilatzen duguna: euskararen erabilera eragitea hizkuntzaren inguruko hausnarketaren bidez.

Joan den ikasturtean Ordiziako Institutuko eta Ikastolako lehen mailako ikasle guztiak programa jaso zuten. Urtxintxa Eskolak Ordizian garatutako lanaren inguruan oso balorazio ona egiteaz gain, parte hartu zuten gazteen ebaluazioa oso positiboa izan zen. Hori dela eta, aurten ere, gazte guzti hauek 14 or-



duz programa jasoko dute tutoretza orduetan. Horretarako, Urtxintxa Aisialdi Eskolako hezitzaile bat, bi astean behin, Ordiziako gaztetxoekin elkartuko da gaia lantzeko.

Baina erabilera eragiteko hausnarketa egiteaz gain, gaitasunetan eragin nahi dugu; hizkuntzaren alderdi ludikoa landu nahi dugu sormena euskaraz bideratuz. Gaitasun hori lortzeko sormena eta hizkuntzaren alderdi estetiko eta ludikoa lantzen dugu.

Hezhiz-en, saioen erakargarritasuna bilatzen dugu talde dinamikan eta guztion parte hartzean oinarrituz. Denon parte hartzearen bidez norberaren eta taldearen hausnarketak bilatzen ditugu. Horregatik, gaztetxoek hizkuntzarekin jolasteko proposamenak luzatzen dizkiegu: abestiak, komikiak, aldizkariak, hizkuntz jolasak, bideoak...

Lantzen ditugun edukiak

HezHiz programarako, beraz, lau multzo bereizi ditugu lanu nahi ditugun kontzeptuak jorratzeko:

1. Aurreiritzi (inter)linguistikoak eta hizkuntza aniztasuna

Gizartean oso zabaldurik dauden iritzi soziolinguistikoetan barrerako ibilbide kritikoa egin dezaten proposatzen diegu. Transmittitu nahi dugun mezua nagusia hizkuntza eta hiztun guztiak berdina direla eta batzuk besteen gainetik ezartzea ez dela bidezkoa.

2. Euskararen aurreiritziak eta antidotoa: gurea ona, baita besteena ere

Kultura ezberdinekiko aurreiritziak agerian jarri ondoren, horiei buruz gogoeta egiten dugu. Norberaren hizkuntza besteen parekoa dela eta besteek adina meritu dituela argi eta garbi azaldu nahi dugu.

3. Euskara eta euskal kultura

Multzo honen hasieran euskaren inguruan dakigunari buruz hausnartzea bilatzen dugu. Ondoren, gazteek euskara zerekin identifikatzen duten ikusi eta horrekin batera, euskal kulturaz zer ezagutzen duten ikustea eta egun zer gauza ari diren sortzen ikustea bilatzen dugu.

4. Erabilera zailtasunak, aukerak eta tresnak

Alde batetik, euskaraz gehiago egiteko zailtasunak identifikatzea eta aukerak aztertzen ditugu. Ondoren, euskaraz gero eta gehiago egiteko eta horretan gustura aritzeko baliabideak eskaintzen ditugu. Erabilera aurrerapauso zehatzak ematea eta aurrera begira horretan jarraitzea animatzea bilatzen dugu.

6-11 años. "HezHiz", hablemos con los jóvenes sobre los idiomas



JAIME ALTUNA

Educador de Urtxintxa Eskola



Todos conocemos lo que es el huevo Kinder. Es un producto que les gusta mucho a los niños, pero, ¿por qué tiene tanto éxito? ¿Porque es de chocolate o porque dentro tiene un premio?. Seguramente la razón del éxito sea doble, es de chocolate y dentro tiene una sorpresa. Es difícil distinguir estos dos elementos; sin premio no sería tan atractivo y sin chocolate no les gustaría tanto a los niños.

Con el euskara, y con el resto de idiomas, sucede algo parecido. Por un lado, está la capacidad para el idioma, tenemos que conocer el idioma; para adquirir ese idioma tenemos que aprender su vocabulario, su fonética, su gramática... Por otro lado, está el uso del idioma; se trataría de practicar ese idioma, hablarlo, escucharlo, escribirlo...

Como con el huevo Kinder, es difícil o imposible elegir entre estos dos factores. Sin conocer un idioma no se puede utilizar y si no lo utilizamos difícilmente lo podremos conocer. Para utilizar un idioma no es suficiente adquirir la habilidad para utilizarlo de forma oral y escrita. El conocimiento del idioma es una condición imprescindible pero no suficiente.

En los últimos 30 años la mayoría de los/las niños/as y los/las jóvenes han aprendido euskara. Gracias a la escuela, los jóvenes de hoy día han conocido el euskara, en gran medida tienen capacidad para actuar en euskara. Sin embargo su uso en la calle no ha crecido tanto y en los últimos años se están ofreciendo bastantes programas para aumentar su uso entre los/las niños/as y los/las jóvenes.

El objetivo de todos estos programas es sacar el euskara de la escuela para cambiar las conductas del idioma de los/las niños/as y los/las jóvenes; queremos que los/las niños/as y los/las jóvenes que en la calle y entre amigos/as hablan en castellano hablen en euskara. Pero, la mayoría de las veces buscamos cambios en sus conductas sin tener en cuenta las opiniones que dichos/as jóvenes tienen respecto al euskara.

¿Qué es HezHiz?

Mediante el programa HezHiz nos basamos en las opiniones, creencias, dudas... de los/las jóvenes para promover el uso del euskara. Es importante tomar conciencia de los factores, normas y actitudes que inciden en el uso del idioma. Con el programa HezHiz eso es lo que buscamos: incidir en el uso del euskara por medio de la reflexión sobre el idioma.

El pasado curso todos los alumnos de primero del Instituto y de la Ikastola de Ordizia recibieron el programa. Además de realizar una muy buena valoración sobre el trabajo desarrollado por Urtxintxa Eskola en Ordizia, la evaluación de los/las jóvenes participantes fue muy positiva. En consecuencia, este año también, todos estos alumnos formarán parte del programa en las horas de tutoría durante 14 horas. Para ello, un educador de Urtxintxa Aisialdi Eskola una vez cada dos semanas, se reunirá con

los/as jóvenes de Ordizia para trabajar el tema.

Pero además de hacer una reflexión que influya en el uso, también queremos incidir en las habilidades; queremos trabajar el aspecto lúdico del idioma orientando la creatividad en euskara. Para conseguir esa habilidad trabajamos el lado estético y lúdico de la creatividad y del idioma.

En HezHiz basándonos en la dinámica de grupo y la participación de todos, buscamos que las sesiones sean atractivas. Con la participación de todos buscamos la reflexión de cada uno y del grupo. Por eso, les realizamos propuestas a los jóvenes para jugar con el idioma: canciones, comics, revistas, juegos sobre el idioma, vídeos...

Contenidos que desarrollamos

Para el programa HezHiz, por tanto, hemos diferenciado cuatro grupos para cultivar los contenidos que queremos desarrollar:

1. Los prejuicios (interlingüísticos) y diversidad del idioma

Les proponemos que hagan un recorrido crítico a través de las opiniones sociolingüísticas que están muy extendidas en la sociedad. El mensaje principal que queremos transmitirles es que todos los idiomas y todos los hablantes son iguales y que no es justo querer imponer unos sobre otros.

2. Los prejuicios sobre el euskara y el antídoto: el nuestro bueno, también el de los demás.


Después de poner a la vista los prejuicios de distintas culturas, reflexionamos sobre ellos. Queremos explicarles claramente que el idioma de cada uno es semejante al de los otros y que tiene tanto mérito como el de los demás.

3. Euskara y cultura vasca

Al principio de este grupo buscamos reflexionar sobre los que sabemos sobre el euskara. Después, vemos con qué identifican los/las jóvenes el euskara y junto con eso, vemos qué conocen de la cultura vasca y buscamos que vean lo que hoy en día están creando.

4. Dificultades, posibilidades y herramientas de uso

Por un lado, intentamos que identifiquen las dificultades para practicar más el euskara y analizamos las opciones. Después, ofrecemos recursos para que cada vez hablen más y mejor el euskara y se encuentren a gusto haciéndolo. Buscamos que den pasos concretos en su uso y que de cara a futuro les animamos a que continúen por esa vía.



12-18 urte. Gaurko heziketa berdintasunezkoa eta neutroa al da?



MURGIBE.

Berdintasunerako aholkularitza

Gaur egun neskek eta mutilak elkarrekin doaz eskolara eta geletan elkarrekin egoten dira, eta Franco garaiko banatutako eskoletako irudi hura urrun geratzen da. Baina neskek eta mutilek "mahaia erdibanatzeak" ez du esan nahi jasotzen duten heziketa berdintasunezkoa denik, ikastetxe gehienek ez dutelako benetako hezikidetzaz bultzatzen.

Eskola mistoak heziketa neutroa, aseptikoa, hau da, neskentzat eta mutilentzat dena, berdina, bermatzen duela dirudi. Ikus dezagun jarraian azaleko neutraltasun hau nabarmen geratzen dela kasu batzuetan.

Testuliburutan erabilitako irudiek eta hizkerak gizartearen ikuspegi ez oso berdintasunezkoa eskaintzen jarraitzen dute, genero rola eta estereotipoak irudikatuz. Hau da, gehienbat emakumeak dira idazkari, erizain, andereino, azafata, ... bezalako lanbideak betetzen agertzen direnak, gizonezkoak aldiz kirolan, enpresan, eraikuntza arloko lanbide maskulinizatutan, garraioan, industrian, e.a. nabarmen dira.

Gizonaren eboluzioari buruz hitz egiterakoan ohikoa izaten jarraitzen du espezieen mailakako aurrerapenaren irudiak, Homo Sapienserraino iristen dena, historiaren ikuspegi erabat maskulinoa transmititzen da eta emakumeak ikusezinezkoak bihurtzen dira.

Ikusezinezko izatearen beste adibide bat gertatzen da zientzia, filosofia, e.a. arloan emakume garrantzitsuen eza-gutzak ez erakustean.

Ikastetxeko espazioaren erabilera sexuaren arabera desberdina da. Mutilek kirolari eskaintako espazio nagusi guztiak (patioaren erdigunea) erabili ohi dituzte, ohikoa da aldiz neskek espazio horien inguruan, aterpetan eta izkinetan jolasean eta ekintzak egiten aurkitzea. Ondorioz irakasleek mutilei arreta handiagoa eskaintzen diete neskei baino.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa da Eskolak transmititzen duen kultur eredu aldatzeko eta erantzukidetasuna, tratu onak, lankidetzaz, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna, ... bezalako baloreak sustatzea.

Baina hau gertatzeko, aldaketa ez da bakarrik eskolan gertatu behar, familian, komunikabideetan, e.a. bezalako gainontzeko eragile sozializatzailetan ere gauzak aldatu behar dira.

- Gaur egungo genero sozializatzailearekin haustea beharrezkoa da, neskei eskaintako heziketan:
- Gehiagotan uzten zaie tristura adieraztea amorrutik sentienduak adieraztea baino.
- Bere sexualitatea ikusezinezko bihurtzen du.



- Erabiltzen den arropa estiloak lehentasuna ematen dio estetikari erosotasunari baino.

- Jostailuek, ipuinek eta bideo-jokoek afektua eta zaintzaz gain, jarrera eta jokabide pasiboak bultzatzen ditu.

Eta mutilei eskaintako heziketak:

- Gehiagotan uzten zaie amorrutik haserre sentimenduak adierazten tristura baino.

- Beraien sexualitatea eta organu genitalak bistaratzen dira.

- Kirol arropa erosoak erabiltzen dituzte eta beraien psikomotritzitatea positiboki garatzen uzten diete.

- Jostailuek, ipuinek eta bideo-jokoek protagonismo eta lidergo jarrerak eta jokabideak bultzatzen dituzte.

Azkenik *Berdintasunean heitzeko* ondorengo ABCa proposatzen da:

- Emakumeak ikusteko moduan egon daitezkeen berdintasunezko hizkera eta irudiak erabiltzea.

- Maskulinoa emakumezkoaren gainetik ipintzen duen kultur prestigioa zalantzan jartzea, orain arte maskulinoak ospe handiagoa baitu.

- Neska-mutileen gaitasun eta trebetasunak bultzatzea sexuari lotutako estereotipoak ezabatuz.

WEBGRAFIA:

www.educacionenvalores.org

www.educarenigualdad.org

www.redigualdad.com/coeducación

www.zubiakeraikitzen.blogspot.com

12-18 años. ¿La educación actual es igualitaria y neutra?



MURGIBE.

Asesoría para la igualdad

Hoy en día chicos y chicas van juntos a clase y conviven en las aulas quedando lejana la imagen de las escuelas segregadas del periodo franquista. Pero el que chicas y chicos “compartan pupitre” no quiere decir que la educación que reciben sea igualitaria, ya que la mayoría de centros no promueven una verdadera coeducación.

La escuela mixta parece garantizar una educación neutra, aséptica, es decir, igual para niñas y niños. Veamos a continuación algunas claves que ponen en evidencia esta aparente neutralidad.

Las imágenes y el lenguaje utilizado en los libros de texto siguen ofreciendo una visión poco igualitaria de la sociedad reproduciendo los roles y estereotipos de género. Es decir, son las mujeres quienes aparecen mayoritariamente desempeñando profesiones feminizadas como secretarías, enfermeras, maestras, azafatas..., en cambio los hombres sobresalen en el campo del deporte, la empresa, en profesiones masculinizadas del ámbito de la construcción, el transporte, la industria, etc.

Sigue siendo habitual referirse a la evolución del hombre acompañada de la imagen del avance progresivo de especies hasta el Homo Sapiens, transmitiendo una visión absolutamente masculina de la historia e invisibilizando a las mujeres.

Otro ejemplo de invisibilización, es que no se fomenta el conocimiento de mujeres relevantes en el ámbito científico, filosófico, etc.

El uso del espacio del centro educativo es diferente de acuerdo al sexo. Los chicos suelen ocupar prácticamente todo los espacios centrales dedicados al deporte (centro del patio) mientras que es habitual encontrarse a las chicas jugando o realizando actividades alrededor de dichos espacios en los soportales y esquinas. Lo que se deriva en una mayor atención por parte del profesorado hacia los chicos que hacia las chicas.

Por todo ello, es necesario que la Escuela cambie el modelo cultural que transmite y promueva valores como la corresponsabilidad, los buenos tratos, la cooperación, la igualdad de mujeres y hombres...

Pero para que esto ocurra se debe promover el cambio no solo en la escuela, sino que también en los demás agen-



tes socializadores como son la familia, medios de comunicación, etc.

Es necesario romper con la actual socialización de género que en la educación dirigida a las niñas:

- Permite que expresen más la tristeza y menos el sentimiento de rabia.
- Invisibiliza su sexualidad.
- El estilo de ropa que se utiliza prioriza la estética ante la comodidad.
- Los juguetes, los cuentos y los videojuegos fomentan actitudes y conductas de pasividad, además del

afecto y cuidado.

Y en la educación dirigida a los niños:

- Permite que expresen el sentimiento de rabia e ira y menos el de tristeza.
- Visibiliza su sexualidad y sus órganos genitales.
- El estilo de ropa deportiva y cómoda permite desarrollar positivamente su psicomotricidad.
- Los juguetes, los cuentos y los videojuegos fomentan actitudes y conductas de protagonismo y de liderazgo.

Finalmente se propone el siguiente *ABC para educar en igualdad*:

- Utilizar un lenguaje e imágenes igualitarias que visibilicen a las mujeres.
- Cuestionar las jerarquías culturales entre lo masculino y lo femenino, donde lo masculino se encuentra más prestigiado que lo femenino.
- Promover las habilidades y capacidades de las niñas y los niños eliminando los estereotipos asociados al sexo.

WEBGRAFÍA:

www.educacionenvalores.org

www.educarenigualdad.org

www.redigualdad.com/coeducación

www.zubiakeraikitzen.blogspot.com

Zalantzen Txokoa

1. Kaixo: zer egin behar dudan jakin nahi nuke. Etsita nago 9 urteko nire alabarekin, tik-ak ditu: burua alde batera mugitzen du maiz eta begiak ixten ditu itxuraz inongo arrazoirik gabe eta ez dakit zer egin kentzeko, joango ote dira? A ze estuasuna. Norbaitek laguntzerik baldin badu eskertuko nuke.


Ama edo/eta Aita agurgarria:

Sintoma guztiek dute bere azalpena. Sintoma entzuten ikasi behar dugu bere esanahia ulertzeko, eta beste arlo batzuk baztertzeko (adibidez neurologikoa), eta hau profesional batek egin behar du. Modu egokian aurre egiten ez badiogu, ez da konponduko.

Ezer ez da desagertzen magia bidez, lehenengo zer gertatzen den ulertu behar da eta horrela sintomaren esanahia deskodetzen da. Batzuetan sintomak ez du azaleko kausarik baina hala ere hauek hor daude eta gainditzeko azterketa egin behar da. Gogora ezazu ondo azaldutako arazo bat ia konponduta dagoen arazo bat dela. Zuk diozu ... "etsita zaudela" ..., arazoari aurre egin beharko diozu zure alabak 9 urte besterik ez dituelako eta gurasoak direlako bere arazoan ardura hartu behar dutenak. Honek ez du esan nahi zu zarenik arduraduna, baina, laguntza jaso dezan, profesionalekin (psikologoekin) harremanetan jartzeaz arduratu beharko duzu.

Zure alabak laguntza behar duela konturatzearekin hasi zara dagoeneko zure alabari laguntzen.

Errezetarik ez dago, sintomari aurre egin eta berarekin lan egiteko jarrera eduki.



2. Kaixo, 8 urteko seme bat duen bikote bat dut eta mutil honek ez du bere ama edo bere aita ez den beste inorekin egon nahi. Askotan azaldu diogu, baina minik eman nahi ez diogunez, ez gara elkarrekin lo egiteko gai bera etxean dagoenean. Nola egin dezakegu bikote bizitza normal bat edukitzeko eta mutilari minik eman gabe lo egin ahal izateko?

Arazoa azaltzerakoan ez dago argi ama batek edo aita batek egiten duen kontsulta, ezta mutila bere ohiko etxean edo beste gurasoaren etxean bizi den ere. Datu zehatz hauek izango banitu, nire erantzuna zehatzagoa izango litzateke, baina hala ere, ondorengo gogoetak egin ditzakegu:

Seme-alabek gurasoak behar dituzte eta ez bikoteak, helduak dira bikotea bilatzeko beharra dutenak.

Gurasoek seme-alaben eskakizun eta behar afektiboak, materialak eta jolasezkoak bermatzen dituztenean, banaketa ez zaie hain gogorra iruditzen eta ez zaie inporta elkarrekin edo banaturik dauden gurasoak, zoriontsuak baldin bada. Normalean pentsamendu hauek helduenak dira eta askotan hurrek bere egiten dituzte. Seme-alabek, beraien bizitza afektiboarekin pozik daudenean ez dute arazorik izaten gai honekin.

Gurasoek beste bikotea aurkitzean ez du zertan seme-alaba zauritu beharrik. Horrela gertatuko balitz, gurasoen papera aztertu beharko litzateke eta ez bikotearen papera.

Gogoan izan edozein gurasok **ondo osatutako** bikoteak semearentzat eredu bikain bat direla.

Argi eduki bikotea osatzeak ez diola inori kalterik egiten, kalte egin dezakeena da guraso papera ondo ez betetzeak. Aztertzen duzun lehenengo gauza hau bada, zure kezka gainditu dezakezu.

Hurrek gehiago sufritzen dute bere gurasoen bikote lis-karregatik gurasoak banatuta ikustean baino, eta gogoan izan, bikote bizitza normala elkarbizitza eredu osasuntsuagoa dela.

3. Nire seme-alabetako batek 10 urte ditu eta etsita nauka, mundu guztia engainatzen du eta gezurra esaten du ... eskolan, etxean eta berarekin hizketan jartzen den edonori gezurra esaten dio. Etsita nago mutila xarmagarria delako, badirudi inoiz ez duela platerik hautsi, baina eskolan gaizki doa eta berak beti aurkitzen du aitzakiaren bat. Niri gauza bat esaten dit eta eskolan beste bat. 3 egunez eskolara joan behar izan dut bere jarrerarekin azkenean irakasleak deitu behar izan didalako, lehen egunean tripako mina zuelako (etxeko lanak egin gabe zituela ezkutatzeko), 2.ean izugarrizko buruko mina zuelako (ez zuen ikasi) eta 3.ean koadernoan etxean ahaztu zuelako goizean material guztia prest zuen galdetu banion ere.

Ez dakit nola aurre egin arazoari, zigortzen badut zigorraz libratzea lortzen du beste pertsona batzuk bilatuz edo zerbait asmatzen du bere aita eta ni elkarren aurka jartzeko eta horrela berearekin ateratzeko. Aholkuren bat eskertuko nuke.



Ama agurgarria:

Gertatzen zaizuna irakurrita, badirudi zure semeak zuk baino botere handiagoa duela. Seme batek zuk gainezka egitea lortzen badu, zuk gainezka ez egiteko zailtasuna lantzen duzula esan nahi du. Bere eredu zara, eta zuk zure burua errespetatzen, kontrolatzen saiatu behar duzu, berak zu errespetatu zaitzan, zure semeak mugak errespetatzen ikas dezan eta modu eraikitzaileago batean errealitateari eta berarekin zerikusia duten arazoei aurre egiten ikas dezan. Zure semea zoragarria dela pentsatzen jarraitzen duzun bitartean, bere sintoma mantentzen duzu. Bere jokabidea ez da egokia eta definizio horretatik nahiko urrun dago. Haur baztertua dela adierazten duten pertsona batzuk daude. Berak mezu hau jasotzen badu, bere jokabidea aldatzeko baldintzetan egon daiteke.

Zuk ere zure kontraesanak konpondu beharko dituzu arazoa konpondu ahal izateko.

Zure semeak zigorren aurrean erabiltzen duen taktika aztertu eta gero, zure hitzak ez hausteko irimotasun handia-

goa izan behar duzu eta horrela semearen taktika gaindituko duzu.

Ama, zuk zure mugak lantzen badituzu, zure semeari eta beste batzuei mugak ere hobeto zehaztuko dizkiezu.

Zuk dagoeneko arazoaren kontzientzia izatea pozgarria da. Zure semearen jokabide arazoei aholkularitza terapeutiko bat behar dute eta denbora pasatzen ez uztea gomendatzen dizut.



Zuk ere zalantzak al dituzu?

Txoko honetan argitu nahiko al zenituzke?

Idatzi helbide elektronikoa honetara eta zure erantzuna jasoko duzu hurrengo aldizkarian: gizarteongizatea@ordizia.org

GOGORATU ZURE ZALANTZA ERABAT ANONIMOA IZANGO DELA!

El rincón de las dudas



1. Hola: Quiero saber lo que puedo hacer. He echado la toalla con mi hija de 9 años. Tiene TICs: mueve la cabeza hacia un lado y cierra los ojos repetidas veces y sin razón aparente y no sé que hacer para que desaparezcan esos movimientos que aparentemente no tienen explicación. ¿Desaparecerán por sí solos? Es algo bastante incómodo. Si alguien pudiera ayudarme se lo agradecería enormemente.

Estimada Mamá y/o Papá:

Todo síntoma tiene su explicación. Se debe aprender a escucharlo para interpretar su significado, como así también, se debe descartar otras áreas comprometidas (por ejemplo la neurológica), y esto tiene que hacerlo un profesional. Cuando no se lo aborda en forma adecuada no se resuelve.

Nada desaparece por arte de magia, primero hay que entender de qué se trata y así se descodifica el significado del síntoma, que a veces, no tiene causas aparentes pero sin embargo estas existen y reclaman por una investigación para su superación. Recuerde que un problema bien planteado es prácticamente un problema ya resuelto. Ud. expresa que...-“ha echado la toalla”-..., habrá que recuperar la toalla porque su hija tiene escasos 9 años y son los padres los que tienen que hacerse cargo de su problemática. Esto no implica que Ud. sea responsable, pero sí tendrá que responsabilizarse por la consulta a profesionales para que reciba ayuda (psicólogo).

Con el solo hecho de tomar conciencia que su hija necesita ayuda ya ha comenzado Ud. a ayudarla.

No existen recetas sino disponibilidad de trabajar y abordar el síntoma con seriedad.

2. Hola: tengo una pareja que tiene un hijo de 8 años y este niño no quiere que su madre ande con nadie más que con su padre. Muchas veces le hemos explicado, pero como no queremos herirle, no podemos dormir juntos en casa cuando está él. ¿Cómo podemos actuar para tener una vida de pareja normal y poder dormir juntos sin que el niño sufra?

La formulación de este problema no deja claro si se trata de una mamá o de un papá, como así tampoco si el niño reside en su casa habitualmente o en el de su otro progenitor. Si hubiera contado con estos datos específicos, mi respuesta hubiera sido más puntual, a pesar de esto, podemos hacer las siguientes reflexiones:

Los hijos necesitan padres no parejas, son los adultos los que necesitan emparejarse.

Cuando el hijo tiene garantizado los requerimientos y necesidades afectivas, materiales y recreativas entre otras, por sus padres, no le cuesta la separación de éstos y menos aún la posibilidad de verlos juntos o separados, solos o acompañados si son felices. Normalmente estos planteos como el de su problemática son de adultos y muchas veces los niños lo hacen suyo. Cuando los hijos están satisfechos con su vida afectiva no tienen conflicto con este tema.

Que los padres rehagan su pareja no tiene porqué herir al hijo. Cuando así sucede, hay que revisar el rol de padres no de pareja.

Recuerde que toda pareja **bien constituida** de cualquiera de sus padres es un excelente modelo para el hijo.

Es importante tener claro que el sentirse realizado en pareja no produce daño a nadie, sí puede producir daño cuando no se está desempeñado sólidamente el rol de padres. Si se revisa y se trabaja esto primero, su inquietud puede ser superada.

Los niños sufren más por la desavenencia de pareja de sus progenitores que por la realización de los mismos por separado, y recuerde también que una vida normal de pareja es una vida de convivencia saludable.



3. Uno de mis hijos tiene 10 años y me tiene desbordada. Engaña a todo el mundo, cuenta muchas mentiras. En el colegio, en casa y a cualquiera que hable con él. No sé que hacer con él porque es un niño adorable, parece que nunca hace nada malo, pero va mal en la escuela y él siempre encuentra alguna excusa para justificar sus malos resultados escolares. A mí me dice una cosa y en el colegio dice otra. He tenido que acudir al colegio 3 veces porque con su comportamiento ha conseguido que su profesor me llamara para darme cuenta de su comportamiento: el primer día porque le dolía la tripa (excusa que puso mi hijo para explicar por qué no había hecho sus deberes), el segundo día porque tenía mucho dolor de cabeza (no había aprendido lo que le había pedido el profesor) y el tercer día porque se le había olvidado el cuaderno en casa a pesar de que esa mañana le pregunté si llevaba todo lo necesario a la escuela y me respondió que sí.

No sé cómo enfrentarme a este problema. Si le castigo, consigue librarse del castigo buscando que otras personas actúen para que le levante el castigo y se inventa cualquier cosa para que su padre y yo no nos pongamos de acuerdo sobre lo que tenemos que hacer con él y así consigue salirse con la suya. Agradecería algún consejo.

Estimada Mamá:

Leyendo lo que le ocurre, parece que su hijo tiene más poder que Ud.

El que un hijo la tenga desbordada, hace necesario que se trabaje sobre la dificultad que Ud. posee para evitar el desborde. Es su modelo, y como tal debe procurar respetarse, controlarse y que la respeten para que él también aprenda a respetar los límites y enfrentar la realidad y sus dificultades concomitantes de una manera más constructiva. Mientras siga pensando que su hijo es adorable, sostiene su síntoma. Su comportamiento no es valioso y dista bastante de recibir este calificativo. Existen terceros que le están devolviendo la apreciación que es un niño rechazado. Si él percibe esto, puede estar en condiciones de revertir su comportamiento. Ud. también debe reconciliarse con sus contradicciones como condición para resolverlas.

Conociendo la modalidad que él emplea frente a los castigos se hace necesaria mayor firmeza para evitar que Ud. transgreda sus palabras y aliarse así con la transgresión de él.

Mamá, si Ud. trabaja sus límites resultará más factible ponerlos tanto a su hijo como a terceros.

Es satisfactorio que desde Ud. ya hay conciencia de la problemática. Las dificultades de comportamiento de su hijo requieren una consulta terapéutica para su abordaje y recomiendo no dejar que el tiempo avance.



¿Tú también tienes dudas?

¿Te gustaría aclararlas en este rincón?

Escribe tu duda a este correo electrónico y recibirás tu respuesta en la siguiente revista: **gizarteongizatea@ordizia.org**

¡NO OLVIDES QUE TU DUDA SERA TRATADA CON TOTAL ANONIMATO!



Herriak Elkarlanean

Duela 11 urte Goierrin sortu zuen Elezbarrutietako Misiolak, pobrezian bizi diren herrialdeekin lan egiten duten misiolariak laguntza emateko helburuarekin. Gobernu Kanpoko Erakunde honetako Gipuzkoako herri desberdinetako pertsonak boluntario gisa lan egiten dute pertsona hauen lan baldintza txarrak hobetzen laguntzeko, bai Haitin, bai Beninen (Afrikan).

Ordizia, udalaren bitartez, urte dezente daramatza laguntza emanez, neskenzako barnetegi bat eraikitzen ari dira adibidez. Neska hauek nagusiak diren gizonezkoekin ezkontzera behartzen dituzte eta ezin dute ezezkorik esan eta etxetik ihes egiten dute.

Barnetegia egiteko arrazoi batzuk: hezkuntza-maila hobetzea, osasuna eta horrekin batera elikadura eta zabalduen dauden gaixotasunak ezagutzeko osasun heziketa hobetzea. Udal desberdinen artean sustatutako proiektu hau amaitu da dagoeneko eta martxan da barnetegia.

-Haitirako, pasa den urtean, GKE honi dagokion 0,7ko zatirekin parke bat erosi zuten Jacmeleko umeentzako, "Haitin ume izateko eskubidea" proiektuaren barruan, parke hau onik atera da lurrikararen ondoren Santo Domingon zegoelako eta borondatez lan egin behar zuten muntatzaileek hurrengo oporraldiko lanegunetan joan behar zutelako.

-Aurten, hondamendia igaro eta gero, udalak ordiziar askok eta inguruko herrietako herritar askok emandako elikagaiz, arropaz eta osasun produktuez betetako bi kontainerontzi bidali zituen, eta horrekin batera ekipo elektrogenoak, ur arazgailuak, kanpin-dendak...GKE honi egindako diru-ekarpenei esker Haitiko biztanleei egoera larri honi aurre egiteko laguntza emango zaie.

-Proiektuetan lan egiteaz gain eta larrialdiko egoeretan laguntza bidaltzeaz gain bidezko merkataritza sustatzen dugu, eta lan horretan Goienetxe fundazioaren laguntza dugu, GKE batekin batera lan egiten duen gutxitu psikikoen lehen erakundeetako bat da. Denda honek bi helburu ditu:

Lehena, kalitatezko produktu hauek erostean artisau eta nekazari hauei soldata duina irabazten laguntzen diegu, produktu hauek egiteko prozesuan ez dute inoiz umeek parte hartzen, ingurumena zaintzen dute eta produktu biologiko izateko araudia betetzen dute.

Bigarrena, bertan lortzen dituzten etekinak HERRIAK ELKARLANEANek burutzen dituen proiektuetan inbertitzen dira.

Lerro hauen bitartez bidalitako SOS deialdiei erantzuna ematen dieten pertsona, erakunde eta elkartei eskerrak eman nahi dizkiegu. Jarraitu horrela, Haitik behar gaitu.

Herriak Elkarlanean

Nace hace 11 años en el Goierri de la mano de MM DD VV con el objetivo de ayudar a los misioneros que trabajan duro con las personas de los países

Empobrecidos, Los cooperantes de esta ONG, de varios pueblos de Gipuzkoa, trabajan como voluntarios para ayudar a mejorar las pésimas condiciones de vida de estas personas, tanto en Haití como en Benin (Africa).

El pueblo de Ordizia, a través del Ayuntamiento, lleva varios años colaborando como en el caso de la construcción de un internado para niñas que se ven obligadas a huir de casa por que las obligan a casarse con hombres mayores y no pueden negarse.

El objetivo de este internado es mejorar el nivel escolar, las condiciones de salud y una educación sanitaria que tenga en cuenta la alimentación y las enfermedades mas difundidas. Este proyecto realizado entre varios Ayuntamientos esta acabado y en funcionamiento.

Para Haiti, el pasado año, con la parte del 0,7 correspondiente a esta ONG se compró un parque para los niños de Jacmel con el proyecto "Derecho a ser niño en Haití". Este parque se ha salvado del terremoto por encontrarse en Santo Domingo a la espera de los montadores voluntarios que deberían ir en sus próximas vacaciones laborables.

-Este año tras la catástrofe, el Ayuntamiento ha subvencionado el envío de 2 contenedores que partieron repletos de alimentos, ropa y productos sanitarios donados por muchos ordiziaras y otras muchas personas de los municipios de la zona, así como equipos eléctricos, potabilizadoras de agua, toldos, tiendas de campaña etc.... que, adquiridas con las aportaciones económicas hechas a esta ONG, contribuirán a paliar la gravísima situación en que se encuentran los haitianos.

Además de trabajar con proyectos y ayudas a emergencias impulsamos el comercio justo, en cuya labor contamos con la fundación Goienetxe que se convierte así en una de las primeras entidades de disminuidos psíquicos que colaboran con una ONG.

Con esta tienda se persiguen 2 objetivos:

El primero dar a conocer que al comprar uno de estos productos de calidad ayudamos a los campesinos y artesanos a conseguir un sueldo digno. Que son productos en cuya elaboración nunca participan niños, son respetuosos con el medio ambiente y cumplen la normativa de producto biológico. El 2º que los beneficios obtenidos se invierten en los proyectos que lleva a cabo HERRIAK ELKARLANEAN.

Agradecemos desde estas líneas a las entidades, sociedades y personas que siempre responden a los SOS enviados .Seguid así Haití nos necesita